



ERANSKINA

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO ETA SUSTATZEKO 1/91 ZK.KO UDAL ORDENANTZA

Euskal Herriko Estatutuan zehaztutakoari jarraiki, euskarak, Euskal Herriko berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera; eta herritar guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Era berean, Komunitate Autonomoko erakunde komunek bi hizkuntzen erabilera bermatuko dute, eta berorien ofizialtasuna erregulatu egingo dute. Horrez gain, hizkuntza ofizial bien ezagutza ziurtatzeko behar diren neurriak eta bitartekoak erabaki eta baliaraziko dituzte.

10/1982 Oinarrizko Legeak, azaroaren 24koak, garatzen du, halaber, Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan zehaztutakoa, euskararen erabilera arautzen baitu. Bestalde, 250/1986 dekretuak, azaroaren 25ekoak, arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera eta normalizazioa, aipatutako Legean zehaztutakoari jarraiki.

Administrazio bakoitzak aplikatu behar ditu aipatutako arauok nahiz xedapen orokorrak dagozkion jarduera-eremuetan; eta, era berean, ondorio horietarako beharrezkoak diren arauak sortu eta bitarteko egokiak eskura jarri behar ditu. Eta horixe da, hain zuzen, ordenantza honen helburua: indarrean dauden xedapen orokorrak betetze aldera, Muskizko jarduera-eremuan arauak sortu eta bete daitezen bermatzea.

Euskara da Euskal Herriko hizkuntza ofiziala, gaztelania bezala; eta, halaber, herri euskaldun osoen ondarea da. Beraz, herri horretako herritar guztiak integratzeko tresna baliagarria izan behar da; eta Muskizko Udalak ahaleginak egingo ditu muskiztarrentzat ere horrela izan dadin.

Gauzak horrela, udal barruan zein udalaren eta herritarren artean zein udalerriko gizarte bizitzarako euskararen erabilera normalizatzeko asmoz, ordenantza honen bidez definituko da Muskizko Udalak garatu beharreko lege-eremua.

Alabaina, euskararen egoera ez dago oraindik normalizatuta eta euskararen normalizazio osoa lortze aldera, Muskizko Udalak berdin tratatuko ditu euskara eta gaztelania, harik eta Muskizko Udalean eta hirian bertan euskara ere erabili arte.

Euskal Herriko herritar guztiek dute eskubidea euskara eta gaztelania erabiltzeko bai idatziz, bai ahoz; eta horretan oinarrituta, Muskizko Udalak hurrengo hizkuntza eskubideak aitortu nahi dizkie espresuki herritarrei:

- a) Udalarekin eta bere menpeko erakunde orekin ahozko zein idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea. Era berean bultzatuko da eskubide hau Udalarekin harremanak dituzten erakundeen artean.
- b) Udalak antolatu, kudeatu eta lagunduriko ikasketa oro euskaraz egiteko eskubide zinezkoa.
- c) Udalaren argitalpenak eta egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta jakinarazpen oro euskaraz jasotzeko eskubidea.
- d) Udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea.

LEHENENGO ATALA:



JARDUN-EREMUA

1. artikulua.

Muskizko Udal-Administrazioaren eta bere menpe dauden erakundeen euskararen erabilera ordenantza honek ezartzen dituen xedapenek arautuko dute.

BIGARREN ATALA

HIZKUNTZEN ERABILERA OROKORRA

2. artikulua.

Muskizko Udalak, oro har, euskara eta gaztelania erabiliko ditu bere harremanetan, indarrean dauden arau eta lege orokorrei eta honako artikuluetatik ondorioztatzen diren xedapenei jarraiki.

HIRUGARREN ATALA

EUSKARAREN ERABILERA UDAL BARRUAN

3. artikulua.

Izaera administratiboko barne jarduerak era elebidunean gauzatuko ditu Udalak.

4. artikulua.

Muskizko Udaleko organoek erabili beharreko barne inprimakiak elebidunak izango dira.

5.- artikulua.

a.) Bulego eta lan-geletako errotuluak eta gainontzeko antzeko elementuen adierazleak elebidunak izango dira.

b) Gomazko zigituak, tinbre zigitatuak eta antzeko elementuak elebidunak izango dira.

6. artikulua.

Ordenagailu programak eta Udalean erabiltzeko eskuratutako material oro, ahal den neurrian, egokituta egon beharko dira era elebidunean funtziona dezaten.

7. artikulua.

Muskizko Udalak hego Euskal Herriko esparruan hirugarrenei enkargatutako azterlan, proiektu eta lanak era elebidunean aurkeztuko dira.

LAUGARREN ATALA

ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK

8. artikulua.

Muskizko Udalak hego Euskal Herriko lurralde esparruaren barruko beste administrazio publikoei nahiz erakunde ofizialei zuzendutako dokumentazioa era elebidunean erredaktatu beharko da.

9. artikulua.



Beste administrazio publikoek nahiz erakunde ofizialek Muskizko Udalarari zuzendutako dokumentazioa, berau hego Euskal Herriko lurralde esparruaren barrutik datorrenean, euskaraz ere idatzirik bidali dezaten eskatuko du Muskizko Udalak. Euskaraz bidaliko ez balute, jatorrizko erakundera itzuli eta euskaraz bidali dezatela eskatuko luke Muskizko Udalak.

10. artikulua.

Muskizko Udaleko dokumentuak eta espedienteen kopia hego Euskal Herriko lurralde esparrutik kanpoko administrazio publikoetara edo erakunde ofizialetara zuzenduta daudenean, euskaraz erredaktatuko dira, bai eta lurralde horri dagokion hizkuntzan ere.

BOSGARREN ATALA

ADMINISTRATUEKIKO HARREMANAK

11. artikulua.

Udalerriko esparruan nahiz hego Euskal Herrikoan bizi diren pertsona fisikoei zein juridikoei zuzendutako komunikazioak eta jakinarazpenak elebidunak izango dira, baina herritarrek eskubide osoa izango dute euskara hutsean jasotzeko, hala eskatuz gero. Gauzak horrela, Muskizko Udalak errolda bat osatuko du dokumentazioa euskara hutsean jaso nahi duten pertsonekin. Eta pertsona horiei euskara hutsean zuzenduko zaie Udala.

12. artikulua.-

Hego Euskal Herriko esparrutik kanpo bizi diren pertsona fisikoei eta juridikoei zuzendutako komunikazioak eta jakinarazpenak euskaraz bidaliko dira, bai eta dagokion hizkuntzan ere.

13. artikulua.

Udal administrazioak euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzen zaizkion pertsona fisikoen komunikazioak onartuko ditu; eta horrela balegokio, berri emailearen lurraldeko beste hizkuntza ofizial batean eginikoak ere bai.

14. artikulua.

Inprimakiak euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dira, baina herritarrek eskubidea izango dute euskara hutsean erabiltzeko.

15. artikulua.

Hego Euskal Herriko esparruaren barruan nahiz kanpoan eragina duten dokumentuak euskaraz erredaktatuko dira, bai eta dagokion hizkuntzan ere.

16. artikulua.

Espedienteen kopia euskaraz eskainiko dira, bai eta dagokion hizkuntzan ere. Edo euskara hutsean, eskatzaileak hala nahi izango balu.

17. artikulua.

Gutxienez funtzionario bat euskaraz zuzenduko zaie herritarrei ahozko harreman ofizialean, eta errespetatu egingo da herritarren aukera askea hizkuntza aukeratzeko.

18. artikulua.



Udalak izenpetzen dituen kontratazio-dokumentu guztiak euskaraz idatziko dira, bai eta dagokion hizkuntzan ere.

SEIGARREN ATALA.

OHAR, ARGITALPEN ETA JARDUERA PUBLIKOAK

19. artikulua.

Muskizko Udal Administrazioaren eta bere menpe dauden erakundeen xedapenak era elebidunean argitaratuko dira. Halaber, iripzide hau jarraituko da Udalarekin harremana duten erakundeen artean.

20. artikulua.

Aldizkariak, kartelak eta, orohar, Udalaren argitalpen guztiak era elebidunean argitaratuko dira, Euskal Herriko lurralde-esparrutik kanpora begira bereziki zuzendutakoak izan ezik. Hauek euskara/gaztelania edo euskara/hartzailearen hizkuntza formatu elebidunean argitaratuko dira.

21. artikulua.

Piktogramekin batera agertzen diren jakinarazpenen kasuan edo mezua ondo ulertzen dela bermatuta dagoen kasuetan, euskara hutsean joango dira.

22. artikulua.

Udalak edo bere menpe dauden erakundeek sortutako oharra, iragarpen publikoak edo edozein motatako publizitatea elebidunak izango dira. Udalarekin harremanak dituzten erakundeen artean ere irizpide hau bultzatuko da.

ZAZPIGARREN ATALA.

ERREGISTROAK

23. artikulua.

Udalan inskribatzen diren dokumentuak, sarrera zein irteera dokumentuak, idatzita inskribatzen diren bezala erregistratuko dira, azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 7. artikuluari jarraiki.

24. artikulua.

Udal erregistroan sortutako ziurtagiriak elebidunak izango dira, edo euskara hutsezkoak, interesatuak hala eskatuz gero.

ZORTZIGARREN ATALA

LANGILEAK BIRZIKLATZEA

25. artikulua.

Aurreko artikuluetan zehaztutakoa betetze aldera, Udalak hainbat neurri hartuko ditu langileak euskalduntzeko. Horretarako, beharrezkoa izango da lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizuna zehaztea. Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuaren 3.3 artikulua araberak, Hizkuntza Politikarako Idazkaritzari dagokio aipatutako hizkuntza eskakizunak zehaztea. Horrenbestez, Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak behin hizkuntza eskakizunak zehaztuz gero, Muskizko Udal Korporazioak onartu eta Ordenantza honetan jasoko dira eranskin gisa.

26. artikulua.

Muskizko Udalak baimena emango die langileei ikastaro trinkoak egin ditzaten administrazio-atalen arabera. Horrela, langile guztiek ezagupen nahikoak izango dituzte lana euskaraz ere egiteko, betiere derrigortasun data kontuan hartuta.

Udalak eskura jarriko dituen baliabideak oso bestelakoak izango dira: lanaldi murrizketako ikastaroak, lanaldi osoko ikastaroak, ikasturte bateko edo askoko ikastaroak, barnetegiak, prestakuntza lanpostuan bertan, etab.

27. artikulua.

Ordenantza honen arabera, edozein herritarrek izango du aukera euskaraz zein gaztelaniaz izateko harremanak Muskizko Udalarekin edo bere menpe dauden erakundeekin. Gauzak horrela, lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten langileek euskaraz egingo dute lana. Gainontzeko langileek, aldiz, euskara planari jarraiki, euskaldundu ahala egingo dute lana euskaraz apurka-apurka, harik eta lanpostuko hizkuntza eskakizuna lortu arte. Behin hizkuntza eskakizuna egiaztatu eta gero eta lan funtzioak kontuan izanda, euskaraz egin beharko dute lana. Era berean, ezin izango zaie eskatu horrelako langileei lanaren itzulpena egin dezatela gaztelaniara. Edozein kasutan ere, Euskara Zerbitzuari dagokio horrelako lanak itzultzea. Halaber, Euskara Zerbitzuak bermatu beharko du herritarrek eskubide askea dutela hizkuntza aukeratzeko; eta, horrekin batera, gaztelaniarako itzulpena egingo dio herritarrari.

28. artikulua.

Lana euskaraz egin ahal duten langileei eta horrela egiten duten langileei baliabideak jarriko dizkie Muskizko Udalak, hala nola: lexikoa, hiztegiak, terminologia zerrendak, aldizkariak eta liburu berezituak eta edozein motatako dokumentuak, inprimakiak eta ereduak. Era berean, Euskara Zerbitzuko aholkularitza zerbitzua ere izango dute.

29. artikulua.

Muskizko Udaleko eta bere menpe dauden erakundeetako lanpostu berria lortzeko (leku aldaketaz, igoeraz, transferentziaz nahiz beste edozein bidez lanpostu batera heltzeko, alegia) ezinbesteko baldintza izango da lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea. Horretarako, Udaleko lanpostu guztien zerrendak jasoko du lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza eskakizuna. Hizkuntza eskakizunen zerrenda erantsi egingo da urteko aurrekontuetan; horrela, lanpostuen zerrenda jasotzeaz gain, dagokion hizkuntza eskakizuna ere jasoko du eta Udalbatza Osoak onartu egin ahal izango du. Horretarako, beharrezkoa izango da dagokion epearen barruan aurkeztea, urte horretako aurrekontuko lan eskaintzan jasotze aldera.

BEDERATZIGARREN ATALA

LANGILE BERRIAK HAUTATZEA

30. artikulua.

Halaber, ordenantza honetan jasotzen diren lanpostu guztiei begira, lanpostu horiek derrigortasun data zehaztuta izanez gero, Muskizko Udalak kontratatu beharko ditu langile eta funtzionario gaituak lanpostuko lan-jardunak euskaraz zein gaztelaniaz egin ahal izateko.

31. artikulua.

Euskara jakitea beharrezkoa ez den lanpostuetan, euskara meritu gisa baloratuko da. Gauzak horrela, langileak edo funtzionarioak kontratatu baino lehen, euskara baloratuko da meritu gisa.

32. artikulua.

Lanpostu batean aritzeko, bai funtzionario moduan, bai lan-kontratuaren bidez, guztiz beharrezkoa izango da lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea.

33. artikulua.

Hizkuntza eskakizunetarako azterketak egin eta gero, ez balego inor hizkuntza eskakizuna betetzen duenik, puntuazio altuena lortu duen pertsonarentzat izango da lanpostua (euskara proba kontuan hartuta). Pertsona horri behin-behineko kontratua egongo zaio, eta Udalak aukera emango dio zentzuzko epe baten barruan lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko. Epe hori igaro ondoren, langileak aurkeztu beharko du lanpostuko hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria udaletxean. Horrela egiaztatutakoan, behin betiko kontratua egingo zaio; bestela, kontratua bertan behera geratuko da, eta lanpostu hori edo barne sustapeneko deialdira edo deialdi publikora aterako da.

HAMARGARREN ATALA

EUSKARAREN ERABILERA UDALERRIAN

34. artikulua.

Muskizko Udalean euskara normalizatze aldera, hurrengo helburuak ezarri ditu Udalak: euskara gizartearen bizitzan gero eta indartsuago ager dadin beharrezko planak bideratzea. Elebidunen kopurua handitu, egungo erabilera hobetu eta Muskizko Udalerri osoan euskaldunen kopurua areagotze aldera, bitarteko egokiak bideratzea euskara ez dakitenek euskara ikas dezaten eta euskara dakitenek alfabetizatu daitezen.

35. artikulua.

Muskizko udalerriko kaleen, bideen, auzoen, mendien, ibai eta erreken, eta, oro har, leku izenen izendegi ofiziala zehaztuko du Muskizko Udalak, betiere izen elebidunak sortzeko orduan, euskal, erromantze edo gaztelaniazko jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzeko grafia erabiliz.

Aurreko paragrafoan aipatutako izendegi ofizialei buruz ezadostasunik sortuz gero, toki korporazioak beharrezko erabakia hartuko du Euskaltzaindiaren irizpidea jaso eta gero.

36. artikulua.

Bide publikoetako, kaleetako, zeharbideetako seinale, eta, oro har, mota guztietako iragarkiak elebidunak izango dira, betiere ulergarriak izango direla bermatuz eta nazioarteko arauak errespetatuz.

37. artikulua.

Muskizko Udalak neurri egokiak hartuko ditu garraio publikoetako inprimaki, abisu eta jakinarazpen oro elebidunak izan daitezen. Batez ere langileen, publizitate sareen eta errotuluen esparruan egingo da indar handiena. Era berean, Muskizko Udalean abiapuntua edo geralekua duten garraio publikoetako arduradunei eskatuko zaie hemen aipatutakoa kontuan har dezaten.

38. artikulua.

Udalak ahalegin bereziak egingo ditu euskararen presentzia areagotzeko eta sustatzeko, eta berorren erabilera indartzeko udalerriko bizitza sozial eta kulturaren eremu guztietan (merkataritza gunetan, kultur erakundeetan, gizartearen, kirol arloan, erlijio esparruetan edo



beste izaera bateko erakundeen artean), baina indar berezia egingo du hurrengo helburu hauetan:

a) Urtean zehar udal esparruan sortzen diren idatzizko komunikazio-jarduerak: idatziak, kartelak,... elebidunak izango dira...

b) Urtean zehar udal esparruan sortzen diren ahozko komunikazio-jarduerak: jakinarazpenak, propaganda, oharra, ... elebidunak izango dira...

39. artikulua.-

Udaleko instalazioak, hesiak, tabloiak edo bestelako instalazioak zein materiala erabiltzeko kontuan hartuko dira ordenantza honetan zehaztutako beharrak.

40. artikulua.-

Udal ordenantzetan jasoko ditu Udalak hainbat dirulaguntza kultur, merkataritza eta aisialdiko elkarten gastuei aurre egiteko. Elkarte horien izaera ez da zertan izan ofiziala eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak izan litezke.

41. artikulua.-

Muskizko irakaskuntza ez unibertsitarioari dagokionez, eta euskararen irakaskuntza bermatze aldera, Udalak ahalegin guztiak egingo ditu zentroetako matrikulazio epea zabaltzean, euskararen aldeko apustua egin duten familiei bermatzeko euskara hutsezko irakaskuntza jaso ahal izango dutela umeek, hau da, ume horiek ez dezatela ikasi bestelako eredu batean horren inguruko antolakuntza txarra izan delako. Era berean, Udalak eta irakaskuntza zentroek sustatu egingo dituzte mota guztietako ekintza osagarriak (didaktikoak eta aisialdiari lotutakoak) eskola garaian dauden umeen mundua euskaldunagoa izan dadin.

42. artikulua.-

Hizkuntza normalizatzeko esparruan, Muskizko Udaleko helburu nagusietako bat da euskara hiztunen kopurua areagotzea. Gauzak horrela, Udalak laguntza emango dizkie ofizialak ez diren baina izaera publikoa duten erakundeei eta elkarteei. Laguntzak ekonomikoak zein azpiegitura aldetikoak izango dira. Baina elkarte edo erakunde berri horiek ez diete trazarik edo kompetentziarik egingo dagoeneko martxan dauden zentroei.

43. artikulua.-

Euskaraz dakitenak euskaraz bizi ahal izan daitezen bultzatzeko asmoz, ahalegin bereziak egingo ditu Udalak gizartearen bizitza euskalduntzeko. Horretarako, haur, gazte eta helduentzat kultura eta aisialdi ospakizun bereziak antolatuko ditu euskaraz. Era berean, euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez eta euskaraz sortzeko ahalmena indartzeko asmoz, herritarrek euskaraz idatzitako lanak argitaratzeko laguntzak emango ditu Udalak. Gauzak horrela, laguntzak banatuko dira euskaraz argitaratutako lanei diruz laguntzeko, bai eta narrazio, poesia eta literatura esparruan argitaratutakoei ere.

44. artikulua.-

Muskizko Udalak komunikabideekin izango duen harremanari dagokionez, eta berorietan euskararen presentzia normalizatze aldera, komunikabideetara bidaliko diren oharra, hau da, Udaleko gaiei buruzko oharra, elebidunak izango dira. Udala, era berean, harremanetan jarriko da komunikabideen arduradunekin, eta euskara erabil dezaten aholkatuko die albisteak argitaratzeko orduan.

Bestalde, eta Muskizko Udalan komunikabide euskaldunak sustatze aldera, Muskizko Udalak erabaki du nazio mailako komunikabideetara euskara hutsezko publizitatea bidaltzea.

45. artikulua.-

Kontuan hartuta erakundeek eginiko lana ezinbestekoa izan dela euskara normalizatzeko, Muskizko Udalak uste du behar-beharrezkoa dela harremana izatea hizkuntza normalizatzeko esparruan lan egiten duten pertsonekin, elkarteekin eta ofizialak ez diren erakundeekin (Euskadin). Izan ere, Muskizko Udalean zein udalerrian euskara normalizatuko badugu, denon artean egin beharko dugu lana.

HAMAIKAGARREN ATALA

EUSKARA NORMALIZATZEKO AZPIEGITURA

46. artikulua.

Ordenantza honen aplikazioaz eta berori garatzeko zein jarraipena egiteko etorkizunean har daitezkeen neurri teknikoek zuzendaritzaz Udaleko Euskara Zerbitzu Teknikoa arduratuko da, eta Euskararen Batzordean jasotako irizpideak izango dira kontuan.

Horrenbestez, irizpideok eztabaidatu ondoren, Udaleko Euskara Zerbitzu Teknikoa eta Udaleko gainontzeko organo politikoak arduratuko dira erabakiak eta proposamenak onartzeaz. Eta Euskara Zerbitzu Teknikoaren zeregina izango da beroien zuzendaritzaz eta jarraipenaz arduratzea.

Era berean, Muskizko Udalean euskara normalizatzearen alde lan egiten duten ikastolek, eskolek, erakundeek, elkarteek eta pertsonak koordinazioa izango dute Udaleko Euskararen Informazio Batzordearen bidez. Horrela, erakunde horien lana eta Udalarena koordinatu ahal izango da. Halaber, beste eginkizun bat honako hau izango da: Udaleko hizkuntza normalizatzeko oinarriak sendotzea eta berori berrikusteko irizpideak sortzea.

47. artikulua.

Ordenantza honetan xedatzen dena bideratzeko Muskizko Udalak ezinbestekotzat jotzen du aurreko artikuluan aipatutako azpiegiturez jabetzea.

XEDAPEN OSAGARRIAK

Lehenengoa.

Muskizko Udalak sortu edota bultzatzen dituen programa guztietan hizkuntza erabileraren normalizazioaren ikuspegia kontuan hartu beharko da, eta Udaleko Euskara Zerbitzua izango da, betiere, Udaleko zerbitzu eta departamentu guztiak informatuko dituena, ordenantza honen ildotik, hizkuntza normalizaziorako ikuspegiaren presentzia berma dadin. Hori guztia dagokion udal-organoak hartu dituen eta har ditzakeen erabakien aldetik kalterik egin gabe.

Bigarrena.

Udalak onartutako gainontzeko ordenantzek eta xedapenek Ordenantza honetan jasotakoak bereganatu beharko dituzte.

XEDAPEN DEROGATZAILEA



Baliorik gabe geratzen dira Ordenantza honen maila berekoak edo txikiagoak izanik, Ordenantza honetan xedatuarekin bat ez datozen edo kontrajarriak diren erabaki guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezkoak diren xedapen eta programa bereziak erabaki eta bultzatuko dituzte Udal Organo Exekutiboek.